

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
57	1.629	102	530
positibo berri	hildako EAEn	positibo berri	hildako
3.409	6	7.320	6
positibo guztira*	UCIn EAEn	positibo guztira	UCIn Nafarroan

*Hernanin 80 Astigarragan 25

«Gaur egun ere oraindik bizi gara gure nazio sentimendu indartsuagatik eta identitateagatik»

‘Euskal nafarrak naziotik estatura’ erakusketa aurkeztu du Beñi Agirre hernaniarrak, euskal historiaren azalpena egiten duena. Biterin egongo da ikusgai, abuztuaren 27ra arte.

HERNANI HISTORIA

Astlehenean jarri zituen ikusgai Beñi Agirrek Euskal Herriko historiaren gakoak azaltzen dituen panelak eta mapa didaktikoak. Hernaniarraren esanetan, erakusketa «bitxi zein interesgarria» dela. Hernanin izan da estreinaldia, eta abuztuaren 27ra arte egongo da ikusgai Biterin, 09:30etatik 13:30etara bitartean. Gainera, erakusketa lagundu duten Nabarraldeko kideek 10:30etan eta 12:00etan ikustaldi gidatua egingo dute.

Zein da erakusketaren helburua?

Batez ere, Euskal Herriaren historia Antzinarotik gaur egun arte erakustea da, zertzelada batean. Horretarako, 4 mapa didaktiko eta 9 panel ditugu erakusketan. Gainera, mapa horietako batzuk azalpena dute, euskeraz eta gaztelaniaz.

Estreinua Hernanin egin duzue, ezta?

Bai, oraingoz hemen gabiltza. Hala ere, erakusketa hau beste leku batzuetara eramateko deiak jaso ditugu. Hernanin oso erantzun positiboa izan du erakusketak, bizi dugun egoerarako, eta pozik nago horrekin. Lehenengo egunean 12 lagun izan ziren, hurrengoan 10 eta atzo, ikustaldi gidatua eta egunean zehar, guztira 14 egon ziren. Hemendik pasa direnek erakusketa oso berritzailea dela esan didate.

Zein lantalde dago guzti honen atzean?

Nabarralde izeneko talde bat gara. Oso talde zabala da, bere

egoitza Iruñean duena. Euskal Herriko eta beraz, Nafarroako, historia gizarteratzea helburu duen fundazioa da. Fundazio honen eskutik hainbat talde daude: *Hernani Harrotzen*, esaterako. Azken honek bere nortasun juridiko propioa du. Usurbilgo *Nafartarrak* taldea ere proiektu honetan aritu da lanean. Usurbilgo taldeak erakusketako panelak landu ditu, eta mapa didaktikoak Hernaniko taldeak. Guztien arteko kolaborazio antzeko bat izan da.

Erakusketara itzulita, panel eta mapetan konkistak aipatu dituzue. Zein eraso izan ditu gaur egun euskal lurraldea denak?

Historian zehar euskaldunek gure estatu propioa genuen eta zatika-zatika gure independentzia galtzen joan gara. Horregatik, garrantzitsua da aipatzea 1200 urtean Gaztelak egindako erasko baten ondorioz, oraingo Araba eta Gipuzkoa galdu zirela, Durangoaldearekin batera. Hori dela eta, Nafarroak itsasorako irtenbidea galdu zuen eta Gaztelak irabazi zuen. Hau da, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa Gaztela izan ziren 1200garren urtetik aurrera.

Iruñeako erresuma ahulduta gelditu zen eta horren ondorioz, izan ditugun auzokideak, tamalez, oso indartsuak izan dira. Espainia edo Gaztelako erresuma, adibidez, Ameriketako konkistaren ondorioz potentzia mundiala bilakatu zen. Frantzia ere potentzia nagusia izan zen eta ondorioz, euskaldunok itota egon gara, bi inperio oso indartsuen artean. Baina gaur egun arte iritsi gara eta gaur egun ere oraindik bizi gara gure nazio



Argazkian Beñi Agirre erakusketa batean, azalpenak ematen.

sentimenduagatik eta identitateagatik. Eta noski... gure indar ahulei esker, nolabait esateko.

Euskal identitatea aipatu duzue zure lanetan. Nola sortu zen eta zein momentutan dagoela esango zenuke?

Gure identitatearen oinarri oso garrantzitsu bat hizkuntza da. Hau da geratu zaigun elementu komuna, euskaldun guztiok batzen gaituena. Baina bada ere identitate politiko bat, landu ez duguna. Identitate politiko hori mahaigaineratu nahi izan da Zazpiak Bat bezalako mezu batekin. Hau da, zazpi probintziak bat. Hala ere, identitate hori historian zehar azalduz gero, alderantziz azaltzen da: bat hori, herri bakar bat den hori, zazpi zatitan banatuta dago. Bada, zatikatuta dago, alboan ditugun bi potentzia nagusi horien eraginez. Orduan, geratu zaigun identitate kulturala, hizkuntzarena, oso indartsua da. Baina

identitate politikoaren batasuna ez dago oso argi, oraindik.

Horregatik, batzuk nafarrak sentitzen dira, besteak euskaldunak, eta beste batzuk ipar euskal herritarrak edo frantses-euskaldunak. Geroz eta konplikatuagoa da konturatzeko guztien artean herri bakarra osatzen dugula. Hori da gaur egun dugun egoera eta erronka. Batasun hori berreskuratzeko erronka dugu.

Azkenik, gaur egungo foruak euskal lurraldeak bizi izan zituen konkisten emaitzak dira, ezta?

Bai. Foruak dira gertakari guzti horien hondarrak. Bai Frantziak eta baita Gaztela-Espainiak militariki lurraldea konkistatu zuten, baina ez zuten lortu euskaldunon eta gizarte honen orimen historikoa ezabatzea. Izan ere, guk badakigu zer egin diguten eta hori gure oroimenean dago; belaunaldiz belaunaldi transmititzen dugu.

Horregatik, identitate aldetik herri bat garelako jakintza bada ere independenteak izan gine la ere badakigu. Estatu bat izan genuela ere badago gure memorian. Hori ez dute lortu ezabatzea eta horregatik, guk, euskaldunok, historiaren subjektu politiko garela sentitzen dugu.

Indar horrek mantentzen gaitu oraindik subjektu bezela nazioarteko tabladuan. Horri esker konkistak ez dira erabatekoak izan. Hortaz, laburbilduz, foruak dira garai batean genuen soberania horretatik geratzen diren azkeneko hondarrak. Gauza txikia da, ia ikusi ezin dena, baina nolabait besteen aurrean zutik mantentzen gaituena da.

Gainera, foruak mantenduko dira herria mantentzen den bitartean. Badago esaera bat, egoera ondo islatzen duena: «ez dira gailentzen hizkuntza indarstuen duten herriak, herri indartsuak dituzten hizkuntzak baizik». K

BIKAIN
OKINDEGI TX GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Ezlago poligonoa - Tel.: 943 55 00 89 20120 Hernani

GNOMOS

PAPER DENDA

Pelotari, 11 Astigarraga
943 55 38 05

IKATZA
Astigarraga

Kale Nagusia 32,
ASTIGARRAGA
943 55 49 89

ikatzaaberna20@gmail.com

URRATS
OINETAKOAK

ABUZTUAN IREKITA
14tik aurrera
arratsaldez itxita

ONDO PASA ETA GOZATU UDARAZ

Iturriaga, 3 HERNANI
Tel. 943 55 65 64

f

EGURDIA GAUR Zeruan hodei gehiago agertuko dira, baina eguzki-tarteak ere izango ditugu. Goizak ateri eutsiko dio. Arratsalde eta gauean, bero-hodeiak ugarituko dira eta ekaizak jo dezake. **Min.19° / Max.27°**

BIHAR Goizean zerua tarteka hodeitsu egongo da baina ostarteak zabalak izango dira. Arratsaldean, berriz, hodeiak ugarituko dira, eta zaparrada trumoiatsuak bota ditzake. **Min.18° / Max.27°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** Urrutia Etxeberri, 1 (Hernani) 943 557738 **Gauetz:** Urrutia Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



Emakumeon plaza berria, urbanizazio lanik haundienak amaituta.

Emakumeon plazako urbanizazio lanik haundienak amaitu dituzte

Zabalik da jada Emakumeon plaza, martxoan hasi ziren berritze lanak ia guztiz bukatu dituztelako.

ASTIGARRAGA PLAZA

Joan den martxoan hasi ziren Emakumeon plaza berritzeko urbanizazio lanak, eta aurreikusitako epean bukatu dute. Dagoeneko urbanizazio lanik

handienak amaitu direlako, joan den ostiralean zabaldu zuten plaza. Hala ere, «estalpea eta murala urrian amaituko dira eta bitartean itxitura batek inguratuko ditu», adierazi dute.

Zenbait moldaketa, auto eta oinezkoentzat Tomas Alba kaletik Galtzaur kalera doan bidea eta aparkalekuak zabaldu zaizkie ibilgailuei. Gainera, Lanberri kaletik Pelotari kalera doan bidea ere zabaldu da.

Bestalde, Tomas Alba kaletik Errekatxora doan bidea itxita geratuko da, aurrerantzean oinezkoentzako izango

delako gune hori. Horregatik, Errekatxo kaleko atzealdeko bide eta aparkalekura Lanberri kaletik sartu beharko da, azken hilabeteotan bezala.

Eta azkenik, Emakumeon plazarekin elkartu dira oinezko ardatz batean inguruan dauden hiru plazak: Sargardo, Joseba Barandiaran eta Pentagono plazak. **K**



Epaimahaikideko kideak irabazlearen etxearen aurrean.

Bide Alde balkoia, herriko ederrena

GOIZUETA BALKOI LEHIAKETA

Atzo ospatu zen Udakolore balkoi lehiaketaren hirugarren edizioa. Epaimahaia herritik balkoi eta jardinak ikusten ibili zen, asko izan zirelako etxeak apaintzera animatu ziren goizuetarrak. Baina aurtengo irabazlea Pakitaren Bide Aldeko balkoia izan dela erabaki zuten, eta herriko komertzioetan gas-tatzeko 150 euro irabazi ditu.

Ipuin musikatuak gaurkoan, Astarben

Ume zein helduentzat zuzendutako ekitaldia izango da sagardotegiko terrazan, 15:30etan.

ASTIGARRAGA IPUIN MUSIKATUAK

Amelie eta Xirrkietuen Jostunak ipuin-musikatua izango da gaur, Astarbe sagardotegian. Sagar Kultur programazioaren barruan, hainbat ekitaldi anto-

latu dituzte eta gaurkoa da egingo duten azkena. Atzo Apalatxe taldea izan zen kontzertuan Astarben, baita ere. Gaurko saioa 15:30etan hasiko da, Astarbeko terrazan. Sarrerak 3 euro balio du txikientzat eta 6 euro hel-

Ipuin musikatuak eta sagardotegiko menua

Amelie eta Xirrkietuen Jostunak ipuin-musikatuekin gozatzeaz gain, sagardotegiak ekitaldia eta bertako menua erosteko aukera eman du, eskuragai dituen hainbat bonoren bitartez. **K**

Zenbait prebentzio neurri hartu ditu Udalak

Koronabirus kasuak igo direlako, Udalak neurriak hartu ditu.

GOIZUETA KORONABIRUSA

Azken asteetan COVID-19 kasuak pixkanaka igotzen ari dira ikusita, Goizuetako Udalak Nafarroako Gobernu Osasun Zuzendariak ezarritako neurriak aurrera eramatea erabaki du. Lehenik, Udalak adierazi du 15 egunez luzatuko dela uztailaren 22ko 7/2020 Foru Agindua.

Horregatik, taberna, jatetxe, el-karte, pub eta aisialdi guneak gaueko 02:00 eta 06:00ak bitartean itxita egon beharko dute. Bestalde, taberna eta elkarteetan mahai bakoitzean 10 lagun bildu daitezke, gehienez. Eta azkenik, kalean edo parkeetan debekatuta dago botilo edo gisakoak 02:00 eta 06:00ak bitartean egitea. Eta ordutegi horretan ezingo dira 10 lagun baino gehiagoko taldeak elkartu.

«Aurten ez da festarik izanen» gogoratu du Udalak. **K**

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† **Juana Miner Atorrasagasti**

Atzo hil zen, 94 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian bego -

Ahizpak: Gabriela (†) eta Florencio Urquijo (†), Julia eta Martin Guerra (†), Sabina eta Joxe Etxenagusia, Ixiar eta Joxe Goenaga (†) ilobak: Leandro, Xabier, Julii, Ima, Joxe, Jone Urquijo Miner; Maria Rosa, Eduarne, Begoña Guerra Miner; Nekane, Idoia, Iñigo Etxenagusia Miner; Jokin, Lander Goenaga Miner; ezkon ilobak, iloba txikiak, lehengusuak, gainerako ahaideek eta bere zaintzaileak: Kris eta Mima.

Haren anisaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **BIHAR, ASTELEHENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, JOAN BATAIATZAILAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2020ko abuztuaren 9an

OHARRA: Gorputza ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egingo da eguerdiko 10:30ak arte.

† **ESKERTZA Kepa Urreaga Urkizu**

(Marisol Etxeberriaren alarguna)

- Goian bego -

Keparen seme-alabek eta gainerako ahaideek eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zareten guztiei eta baita elizkizunetara etorri zineten guztiei ere.

ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK

Hernanin, 2020ko abuztuaren 9an

† **ESKERTZA Margarita Arrue Amonarraz**

Orain egun gutxi hil zen

- Goian bego -

Margaritaren seme-alabek eta gainerako ahaideek eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zareten guztiei eta baita elizkizunetara etorri zineten guztiei ere.

ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK

Hernanin, 2020ko abuztuaren 9an

IRAGARKI MERKEAK

58 urteko emakume bat eskaintzen da gauetan gaixoak zaintzeko, bai beraien etxeetan baita ospitalean ere. Eskarmentuarekin. **Deitu: 644 269 848**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

Garajea alokagai, anbulatorioaren ondoan, kotxe batentzat. 90 euro hilean. Argi gastua, urtean 60 euro. **Deitu: 943 55 04 71**

Sukaldaria behar da Txintxua tabernan astelehenetik larunbatea eguneko menuetarako. **Deitu: 686597893-943552199**